

## **BERGARAKO UDALA**

### **OINARRIZKO ESKALAKO AGENTE KATEGORIAN**

### **TXANDA IREKIAREN BIDEZ SARTZEKO**

### **HAUTAKETA-PROZEDURARAKO DEIALDIAREN OINARRIAK**

#### **Lehenengoa.– Deialdiaren xedea**

Hautaketa-prozedurarako deialdia egiten da Bergarako Udaleko Udaltzain Kidegoko Oinarrizko Eskalako 3 agente-plaza betetzeko, oposizio-lehiaketa irekiaren sistemaren bidez, zeina, hautaketa-prozeduraren zati gisa, prestakuntza-ikastaro batekin eta praktikaldi batekin osatuko baita.

Deitutako plaza-kopurua handitu ahal izango da, hautaketa-prozesu hau garatzean edozein arrazoirengatik udalean agenteen kategoriako beste lanpostu hutseren bat gehiago suertatuko balitz.

Lanpostu-kopuru handitze hori alkatearen erabakiaren bidez egingo da, eta hogeita batgarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da.

Kopuru-handitze horiek ere oinari hauen arabera arautuko dira, eta, nolanahi ere, prozesu honen oposizioaldi osoa gainditu dutenen pertsonen zerrenda argitaratzeko izapidea egin aurretik xedatu beharko dira.

Deialdi honetan plaza lortu ez baina oposizioaldiko probak gainditu dituztenekin aldi baterako premiei erantzuteko Udaltzaingoko agenteen lan-poltsa osatuko da.

Lan-poltsa honek udalean aurretik osatu diren beste lan-poltsenkiko lehentasuna izango du.

#### **Bigarrena.– Parte hartzeko baldintzak**

1.– Prozeduran parte hartu nahi duten pertsonek, onartuak izateko, baldintza hauek guztiak bete beharko dituzte:

- a) Aldez aurreko eskaera egitea, eredu ofizialaren orria beteta.
- b) Espainiako nazionalitatea izatea.
- c) Gutxienez 1,65 metroko altuera izatea gizonek, eta 1,60 metrokoa emakumeek.
- d) 18 urte izatea eta 38 urte bete ez izana. Muga hori konpentsatu ahal izango da Udaltzaingoko kidegoetan emandako zerbitzuekin.
- e) Batxilergoko titulua edo baliokidea izatea, edo goragoko beste edozein.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Erregelamendua onartzen duen Dekretua bigarrenez aldatzen duen otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan agertzen den baztertzeko osasun-taulan sartuta ez egotea.
- g) Dolozko delituagatik kondenatua ez izatea, administrazio publiko baten zerbitzutik bananduta ez egotea, eta funtzi publikoak betetzeko desgaituta edo etenda ez egotea, hargatik eragotzi gabe birgaitzearen onura aplikatzea, arau penalen eta administratiboen arabera.
- h) Eskatailearen adierazpen bidez, armak eramateko konpromisoa hartzea, eta, hala badagokio, armak erabiltzea.

- i) Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoren batean sartzeko hautaketa-prozeduratik kanpo ez egotea falta astunagatik edo oso astunagatik, salbu eta preskipzio-epearen baliokidea den aldia igaro bada, bazterzko adierazpenaren datatik kontatzen hasita.
- j) Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean ez egotea, indarreko araudiaren arabera, praktiketako funtzionarioaren izendapenak ondorioak dituen egunean.
- k) B+E klaseko edo baliokidea den gida-baimenaren jabe izatea eta indarrean edukitzea praktikaldiaren amaierarako.

Arestian adierazitako baimenek indarrean egon beharko dute uneoro, eskatzen direnetik aurrera, gidatzeko eskubidea eten, galdu edo kendua izan gabe administrazio-izaerako nahiz izaera judizialeko erabakiz, eta esleitutako puntu guztiak galdu gabe ere.

l) 2. hizkuntza-eskakizuna. Hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen-probak gainditzea.

m) Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskubideengatiko 20,65 euroko tasa ordaintzea. Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira ordenantza fiskaletan jasotako egoeraren batean dauden pertsonak eta horren adierazpena egin eta dagozkion agiriak aurkeztuko dira eskaerarekin batera.

Azterketa egiteko tasa ordaintzeari dagokionean beti transferentzia bidez egingo da eskabideak egiteko aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Transferentzia egiterakoan derrigorrez expediente-zenbakia eta deialdian parte hartuko duenaren NAN zenbakia adierazi beharko dira.

Transferentzia-agiria eskaerarekin batera aurkeztuko da.

Ordainketa eskaerak egiteko epean egin beharko da kontu korronte honetan:

KUTXABANK	ES94 2095 5070 79 1061075569
-----------	------------------------------

Parte hartzeko, a), b), e) eta m) ataletan jasotako baldintzak betetzea egiaztatzen duten dokumentuak eskaera-orriarekin batera aurkeztuko dira. Kopiak izango dira.

2.- Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira aipatutako betekizunak, k) letran jasotakoa izan ezik; azken hori deialdian zehazten den egunean eduki beharko da.

3.- Prozeduran parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dituzte aurreko atalean eskatzen diren baldintzak, k) atalean ezarritako salbuespenarekin, eta mantendu egin beharko dituzte karrerako funtzionario izendatu arte Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente kategoriarekin, haien egiazatzeko prozedura-faseari kalterik egin gabe.

4.- Hautaketa-prozeduraren edozein unetan, prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia barne, Bergarako Udalak jakiten badu parte-hartzaleetako batek ez dituela deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen, pertsona hori hautaketa-prozesutik kanpo utziko du, aldez aurretik entzunda.

## **Hirugarrena.- Eskabideak aurkeztea**

Hauta-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan osatuta aurkeztuko dira, gehienez ere hogei (20) laneguneko epean –deialdiaren iragarpena ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–.

Eredu ofizial hori oinarri hauei erantsirik doa, eranskin gisa. Eta eskuratu ahal izango da, halaber, Bergarako Udaletxeko Bergararren Arreta Bulegoan (BAZean; 8:00etatik 15:00etara bitartean, astelehenetik ostiralera) eta Udalaren webgunean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)).

Onartua izateko, eskabideak Bergarako Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko zaizkio eta ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte errefusatuak ez izateko:

- a) Hautagaien adierazi beharko dute deialdiko Hirugarren Oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta.
- b) Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkezten beharko dira:
  - NANaren fotokopia; edo identitatea eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentuarena, beste estatu bateko hautagaien kasuan.
  - Gidabaimenaren fotokopia.
  - Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskatutako tituluaren fotokopia.
  - Kasua hala bada, 2. hizkuntza-eskakizuna betetzen duela edo euskarako ziurtagiri edo titulu baliokideetakoren bat badaukala egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.
  - Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskubideengatiko tasa ordaindu izanaren agiria .
  - Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, merezimenduen fasean ebaluatuak izateko.

Oharra: Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu ez diren merezimenduak ezta eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentuekin eta instantziak aurkezteko epean egiaztatu/entregatu ez direnak ere.

Dokumentu horiek fotokopiak izango dira eta honako hauek izan beharko dira gutxienez eta ezinbestekotzat izanik agiri mota eta edukiari dagokionean:

- 1.- Lan edo zerbitzuen esperientziari dagokionean:

Egindako zerbitzuak ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira. Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak zerbitzu horiek bete diren Administrazioak emandako agirien bitartez egiaztatuko dira, horretarako eskumena duten organoek eginak izango dira eta ziurtagiri horietan zehaztuko dira enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta betetako lanpostuaren funtzoak.

Bergarako Udalean egindako zerbitzuak, betiere eskabidean adierazi badira, agiri bidez kreditatu beharrik ez da izango eta hautagai bakoitzaren expedientearen ageri diren datuen arabera ebaluatuak dira.

- 2.- Prestakuntza. Erakunde ofizialek emandako edo haien homologatutakoak diren ikastaroak izango dira eta bakoitzaren gaitegia edo edukia zehaztuta eta formazio-ekintzen iraupena orduan jaso beharko dute baloratuak izateko.

Informazio hori jasotzen ez duten agiriak ez dira kontuan izango.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak ebazteko ahalmena epaimahaiaren esku egongo da.

- c) Hautagaiet eskabidean adierazi beharko dute Euskadiko Komunitate Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten azterketen faseko ariketak.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorean aurkeztuko dira:

- Presentzialki B@Zean (Bergararen Arretarako Zerbitzuan; helbidea: San Martin plaza, 1. zk.a, 20570 Bergara).
- Telematikoki, Bergarako Udaleko web-orrian: <https://www.bergara.eus/>

Eskabideak, era berean, 39/2015 Legearen 16.4 artikulan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira (urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazioko Procedura Erkidearena).

Izan ditzaketen egitezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan tasa ordaintzen ez bada, edo ordaindutako kopurua oker ordaintzen bada, prozeduratik kanpo geratuko da, deialdi honetako 2.1.m) oinarriko baldintza ez betetzeagatik.

Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko eskabidean merezimendua adierazi ez izana, horiek egiazatzeko agiriak eskabideari erantsi ez izana, tasak ordaindu ez izana edo oinarriean adierazitakori jarraituz behar beste informazioa ez duten agiriak. Baldin eta interesatuak gai horri buruzko omisioren bat hautematen badu, zuzendu ahalko du eskabideak aurkezteko epea amaitzen den artean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko.

### **Laugarrena.– Izangaiak onartzea**

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko du alkateak, eta aginduko du argitaratzeko udaltxeko iragarki taulan, web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Erreklamazioak egiteko 10 egun balioduneko epea ezarri da akatsak zuzendu ahal izateko.

Behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da inolako erreklamaziorik egon ezean. Egonez gero, onartu edo baztertu egingo dira Alkatetza erabakiz eta behin betiko zerrenda onartuko da. Ebazpen hori 21 oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da.

Aurreko zerrendetan, bai eta argitaratzen diren guztieta ere, parte-hartzaleen identifikazioa jasoko da, NANaren lehen eta azken 3 zenbaki eta letraren bidez.

Prozeduraren edozein unetan epaimahaiak jakinez gero hautagairen batek ez duela betetzen deialdian eskatutako baldintzaren bat, hautaketatik kanporatua izango da, entzun eta gero.

Probetan onartutako hautagaiet parte hartu ahal izango dute, baita zerrendetan baztertuta daudenek ere, baldin eta dagozkien inpugnazioak aurkeztuak dituztela eta erabakitzeko daudela frogatzen badute. Ebazpenean erreklamazioak atzera botako balitzte, pertsona horiek prozesutik kanpo geratuko lirateke.

### **Bosgarrena.– Hautaketa-sistema**

1.– Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da: oposizio- eta lehiaketa-sistemak egingo dira, izangaien gaitasuna zehazteko eta haien arteko lehentasun-ordena finkatzeko.

2.- Oposizio-lehiaketaren guztizko puntuazioa bi faseetan lortutakoentzat batura izango da, eta izangaien lehentasun-ordena zehaztuko du.

### **Seigarrena.- Epaimahai kalifikatzailea**

**6.1.** Deitutako hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondorengoa kontuan izanda eratuko da:

- Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 60. artikuluan ezarritakoa
- Ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa
- Uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzan duena

Epaimahaia osatuko dute mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek, Udalean presentzia duten langileen ordezkariek izendatutako kide bat eta prozesu osorako Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak izendatukoak, tartean. Edonola, inoiz ez dira izango bost baino gutxiago.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako batek euskararen probarako ere hartuko du parte epaimahaian.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatutakoan.

Udalean presentzia duten alderdi politikoek izendatutako kide banak ere parte har dezakete begirale moduan.

**6.2. *Espesialitatea*:** Epaimahaiaaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiekin izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

**6.3. *Abstentzia eta errefusatzea*.** Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan ohartemandako gorabeheraren bat egonez gero; eta izangaien mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

**6.4. *Aholkulariak*:** Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzezko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

**6.5. *Eraketa eta lan-egitaraua*:** Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzezko neurri guztiak hartuko dira.

### **6.6. Jarduketa-prozedura:**

- a) Epaimahaiaaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoaren araberakoa izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkarri diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinaketa egonez gero, epaimahaiaaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinaketa hausteko. Epaimahai

kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta btoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiak behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badio, proposaturiko izangaiaren ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaindituko ez balitu baztertzaileak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Lehiaketa-oposizioa epaituko duen Epaimahaia kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta horien izendapena argitara emango da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarkitaulan eta Bergarako Udalaren webgunean.

Epaimahaiburuaren edo bere ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, ordezkaren horretarako izendatu den bokalak ordezkatuko du; eta hura ere bertaratu ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileko kideen artean adin handiena duenak.

Idazkariaren eta haren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileko gehiengoaren erabakiz hautaturiko beste edozein kidek hartuko du haren lekuia.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezkotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko erabakiak hartuko ditu, oinarriean aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarri.

Hauta-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

Aholkulari espezialistak erabili ahal izango ditu epaimahaiak, balorazioaren faseetako batean parte hartzeko.

### **Zazpigarrena.– Oposizioa**

Oposizioa honako proba hauek egitean datza:

#### **1.– Lehen proba, nahitaezkoa eta baztertzailea: proba psikoteknikoa** izango da.

Hautagaien gaitasunak neurtea izango du helburu. Proba horri 0 eta 120 puntu artean emango zaizkio.

Lehen proba horretan, lau ariketa egin beharko dira, denak ere nahitaezkoak eta baztertzaileak. Ariketa bakoitza 0tik 30 puntu bitartean baloratuko da.

a) Arrazoitze-ariketa.

b) Pertzepzio gaitasunari buruzko ariketa (identifikazioa, diferentziazioa...).

- c) Gaitasun espazialei buruzko ariketa.
- d) Hitzezko gaitasunari buruzko ariketa.

Ariketa bakoitzean test erako galdelegi bat erantzun beharko da idatziz.

Test erako galdelegi bakoitzeko galdera bakoitzak lau erantzun aukera izango ditu eta bat bakarra izango da zuzena.

Proba honetan gaizki emandako erantzun bakoitza 1/3 balioarekin zigortuko da. Erantzun gabeko galderak eta bi erantzun dituztenak ez dira zigortuko.

Proba hori gainditzeko, beharrezkoa izango da lau ariketetan, bakoitzean, gutxienez 10 puntu lortzea (beharrezkoa den gutxieneko puntuazio-atalasea), eta gutxienez 60 puntu proba osatzen duten lau ariketetan.

Hautaketa-sistemaren hurrenkera onari begira, Epaimahai kalifikatzaileak, eskatu beharreko gutxiengo maila kontuan izanik, proba honetan erakutsitako ezagutza-maila eta betiere hautagaien identitatea jakin baino lehen, ariketa bakoitza gainditzeko beharrezko gutxieneko puntuazio-atalasea non jarri erabaki ahal izango du, eta akordio hori argitaratuko du. Horrelakoan, ariketa bakoitzeko puntuazioa lortzeko, aurreko paragrafoan xedatutakoarekin bat etorri, Epaimahai Kalifikatzaileak ondorengo formula aplikatuko du:

$$HAP = (APgeh / 2) \times (1 + (PZ - m) / (PZgeh - m))$$

Non:

HAP = Hautagaiak lortutako azken puntuazioa.

APgeh = Ariketan gehienez lor daitekeen azken puntuazioa (deialdiaren oinarrien arabera, ariketan lor daitekeen puntuazio gehiena: 30 puntu).

PZ = Hautagaiak lortutako puntuazio zuzena:

PZ = Erantzun zuzenak – (errore kopurua x 0,333)

m = Epaimahaiak ezarritako ariketa gainditzeko gutxienez lortu beharreko puntuazio-atalasea.

PZgeh = Probaren gehieneko puntuazio zuzena (Proban gehienez lortzen den puntuazio zuzena).

## **2.- Bigarren proba, nahitaezkoa eta baztertzalea, ezagutza-proba, test motako galdelegi bat idatziz erantzutean datzana**

Edukiak zehazteko, I. eranskinoko gai-zerrendan jasotakoa hartuko da kontuan. Proba hau 0 puntutik 100 puntura baloratuko da, eta gutxienez 50 puntu lortzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira.

Test erako galdera-sorta bakoitzak lau erantzun-aurkera izango ditu, eta horietako bat bakarrik izango da zuzena.

Proba honetan gaizki emandako erantzun bakoitza 1/3 balioarekin zigortuko da. Erantzun gabeko galderak eta bi erantzun dituztenak ez dira zigortuko.

Hautaketa-sistemaren ordena ona izan dadin, Epaimahai Kalifikatzaileak, eska daitekeen gutxieneko maila, proba honetan erakutsitako ezagutza-maila eta betiere izangaien nortasuna ezagutu aurretik, proba gainditzeko behar den gutxieneko puntuazio-atalasea non jarri erabaki ahal izango du, eta akordio hori argitaratuko du. Kasu horretan, proba honetako puntuazioa lortzeko, aurreko paragrafoan deskribatutakoaren arabera, Epaimahai Kalifikatzaileak honako formula hau aplikatuko du:

$$HAP = (APgeh / 2) \times (1 + (PZ - m) / (PZgeh - m))$$

Non:

HAP = Hautagaiak lortutako azken puntuazioa.

APgeh = Proban gehienez lor daitekeen azken puntuazioa (Deialdiaren oinarrien arabera, proban lor daitekeen puntuazio gehiena: 150 puntu).

PZ = Hautagaiak lortutako puntuazio zuzena:

PZ = Erantzun zuzenak – (errore kopurua x 0,333)

m = Epaimahaiak ezarritako ariketa gainditzeko gutxienez lortu beharreko puntuazio-atalasea.

PZgeh = Probaren gehieneko puntuazio zuzena (Proban gehienez lortzen den puntuazio zuzena).

### **3.– Hirugarren proba, nahitaezkoa eta bazterzailea: proba psikoteknikoa**

Proba honi 0 eta 120 puntu artean emango zaizkio. Hirugarren proba honetan, bi ariketa egin beharko dira, biak ere nahitaezkoak eta bazterzaileak:

a) Nortasun-testa: ariketa honen helburua da ebaluatzea hautaketa-prozeduran parte hartzen dutenen nortasun-ezaugarri nagusiak eta asaldura eta moldatu ezina neurtzeko adierazleak. Proba honetan, 0 puntutik 60ra emango dira, eta kanpoan utziko dira gutxienez 30 puntu lortzen ez dutenak.

b) Nortasun-testa: lan-jarduerarekin lotutako jokabideak neurtzea du helburu. Proba honetan, 0 puntutik 60ra emango dira, eta kanpoan utziko dira gutxienez 30 puntu lortzen ez dutenak.

Bi ariketa horiek lotuta egongo dira deitutako lanpostuaren profil profesionalarekin.

Hirugarren proba honetako bi ariketetan lortutako datuak ondorengo probetan ere erabili ahal izango dira, neurketa-tresna gisa.

### **4.– Lauigarren proba, nahitaezkoa eta bazterzailea, gaitasun fisikoari buruzkoa**

Proba honi 0 eta 60 puntu artean emango zaizkio. Deialdi honetako II. eranskinean deskribatzen diren 3 ariketak egitean datza. Emaitzen balorazioa eranskin horretan bertan zehazten diren baremoen arabera egingo da.

Proba hori gainditzeko, beharrezkoa izango da ariketa bakoitzean gutxienez epaimahaiak aurrez erabaki eta jakitera emango duen puntuazioa lortzea, eta proba osatzen duten 3 ariketetan gutxienez ere 30 puntu lortzea.

Ariketa fisikoak egitearen gaineko erantzukizuna parte-hartzaileena bakarrik izango da. Ariketak egiteko, bestalde, kirola egiteko ekipamendu egokia ekarri beharko dute.

### **5.– Bosgarren proba, nahitaezkoa eta EZ bazterzailea: aurrez aurreko elkarritzeta bat**

Proba honen helburua da neurtzea hautagaietako jokabide eta gaitasun egokiak dituzten, deitutako lanpostuaren profil profesionaleko eginkizunak eta atazak betetzeko.

Proba hori 0 puntutik 80ra arte baloratuko da, eta 45 puntutik beherako puntuazioa lortzen dutenen kasuan ez da kontuan izango.

Hauek dira elkarritzetan aztertu beharreko lanpostuaren profilaren gaitasunak:

- Ekimen-iraunkortasuna.
- Egonkortasun emozionala.
- Erantzukizuna, etikotasuna eta diziplina.
- Arazoei aurre egitea eta erabakiak hartzea.

– Asertitatea eta herritarrenganako orientazioa.

Elkarrizketetan lortutako erantzunak ebalutzeko, hainbat balorazio-eskala erabiltzen dira.

#### **6.- Seigarren proba. Euskararen ezagutza egiaztatzeko probak egingo dira.**

Derrigorrezkoa eta bazterzailea hautagai guztientzat. Gai edo Ez gai baloratuko da.

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egingo dira.

Ez dute euskarako azterketa egin beharrik izango euskara-maila egiaztatzeko azterketak egin baino lehen Epaimahaiari 2. hizkuntza-eskakizunaren egiazttagiria aurkezten diotenek.

Honako hauek dira euskara-tituluen arteko baliokidetza jasotzen duten araudiak: 297/2010 Dekretua –azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena– eta 47/2012 Dekretua –apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena–.

2. hizkuntza-eskakizuna izatea honela ziurtatu ahalko da:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagiria, 2. hizkuntza-eskakizuna edo goragoko bat egiaztatu izana frogatzen duena.
- Baliokide diren beste ziurtagiriak, betiere euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko indarrean dagoen araudiak dioenaren arabera.

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak Bergarako udalerrian edota HAEE-IVAPEk horretarako zehaztutako beste edozein tokitan egin ahalko dira. Nolanahi ere, proba horiek egitearen ondorioz hautagaiei sor zaizkiekeen joan-etorriko gastuak, mantenukoak eta abar beraien kontura izango dira.

#### **Zortzigarrena.– Oposizioko proben garapena**

1.– Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 1,5 hilabete igaro arte ezin izango dira probak hasi.

2.– Lehenengo proba egiteko eguna, ordua eta lekua gutxienez egutegiko zazpi egun lehenago iragarriko dira, Hogeita batgarren Oinarrian aurreikusitako moduan. Gainerako probak egiteko iragarkiak ere Hogeita batgarren Oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko dira, gutxienez 72 ordu lehenago, Epaimahai Kalifikatzailearen erabakiaren bidez.

3.– Epaimahai Kalifikatzaileak oposizioa osatzen duten probak eta ariketak Zazpigaren Oinarrian ezarritakoaz bestelako hurrenkeran egitea erabaki ahal izango du, bai eta egun berean ariketa bat baino gehiago egitea ere. Kasu horretan, proben eta/edo ariketen emaitzen argitalpenek deialdiko oinarrietañez erarritako hurrenkerari jarraituko diote. Proba eta/edo ariketa bakotzaren emaitzak zazpigaren oinarriko ordenari jarraituz aurrekoan gainditu dutenei dagokienez bakarrik argitaratuko dira.

4.– Nahitaezko probak eta/edo ariketak egiteko Epaimahaiaren deialdiari jarraituz adierazitako egunean, orduan eta tokian agertzen ez direnak automatikoki baztertu egingo dira hautaketa-prozeduratik, baita ezinbesteko arrazoientzat izanda ere. Arau bera aplikatuko zaie nahitaezko edozein proba eta/edo ariketa egiten parte hartzen dutenei, proba eta/edo ariketa horiek egiten hasi ondoren.

Nahitaezko probaren batek ariketa bat baino gehiago baditu, ariketa horietako edozeinetan ez egotea edo berandu iristea ez-agertetzat hartuko da.

Arestian ezarritakoaren salbuespen gisa, eta hautaprobetan aukera- eta tratu-berdintasuna bermatze aldera, emakumeek, haudunaldian, erditzean edo erditu ostean, gaitasun fisikoko proba egiten badute, eta inguruabar horiek Epaimahai Kalifikatzaileari jakinarazten bazaizkio proba egin aurretik eta mediku-zuirtagiriaren bidez egiaztatzen bada, proba atzeratzeko aukera izango dute, gehienez ere 4 hilabete atzerapena eragin zuen egoera amaieratik. Hala ere, gainerako probak egin beharko dituzte, behar diren egokitzapenak eginda.

5.– Proba eta ariketetara indarreko nortasun-agiri nazionala, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko da, eta Epaimahai Kalifikatzaileak uneoro eskatu ahal izango du agiri hori aurkeztea.

6.– Proba baztertzaile bakoitza amaitzean, web-orrian eta iragarki taulan argitaratuko dira hautaketa-prozeduran parte hartzen dutenek lortutako emaitzak, Epaimahai Kalifikatzailearen erabaki bidez, eta berariaz adieraziko da zer puntuazio lortu duten.

7.– Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan egin ahal izango dira oposizioko probak.

### **Bederatzigarrena.– Lehiaketa**

1.– Lehiaketa-fasearen kalifikazioa oposizio-fasea gainditu duten pertsonei soilik aplikatuko zaie.

2.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik hartutako merezimenduak baino ezin izango dira ebaluatu.

3.– Lehiaketa-fasea ez da baztertzailea izango, eta bertan lortutako puntuazioak ezingo dira kontuan hartu oposizio-faseko probak gainditzeko.

4.– Lehiaketa-fasean merezimenduak baloratuko dira, **gehienez ere 150 punturaino**, baremazio honen arabera:

4.1.– Titulazio eta diploma ofizialak baloratuko dira, eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak hala aitortutakoak eta beti ere, titulazioak Kriminologia, Zuzenbidea, Herritarren Segurtasuna, Babes Zibila, administrazio/antolaketa arloa edota lanpostuaren zereginenkin zerikusi zuzen zuena badute hartuko dira halakotzat.

Gehienez **40 puntu** emango zaizkie, baremo honen arabera:

- a) Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 1. mailan (Kualifikazioen Europako Esparruko 5. maila) kokatutako titulazio ofizial bakoitza 10 puntuarekin baloratuko da.
- b) Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 2. mailan (Kualifikazioen Europako Esparruko 6. maila) kokatutako titulazio ofizial bakoitza 15 puntuarekin baloratuko da.
- c) Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 3. mailako edo goragoko titulazio ofizial bakoitza (Kualifikazioen Europako Esparruko 7. maila edo goragokoa) 20 puntuarekin baloratuko da.

4.2.– Ingelesa eta frantsesa jakitea. Balio akademikoa duten tituluak emateko legez gaitutako ikastetxeek emandako zuirtagiri ofizialaren bidez hizkuntza horien ezagutza agiri bidez egiaztatzea baloratuko da,

Gehienez **10 puntu** emango dira, honako xehetasun eta maila hauen arabera:

- a) Tarteko maila (Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B2 edo baliokidea): 5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- b) Maila aurreratua (Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko C1 edo goragoko maila edo baliokidea): 5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Hizkuntza berak ezin izango du balorazio bat baino gehiago eragin; beraz, mailarik altuena duena bakarrik hartuko da kontuan.

#### 4.3.- Euskara. Lanpostuak duen baino maila altuagoko HEa egiaztatuta izatea:

3. HEa izatea: 10 puntu
4. HE izatea: 15 puntu

4.4.- Prestakuntza edo hobetze ikastaroak: Gehienez 30 punturekin baloratuko da lanpostuarekin esklusiboki eta zuzen zuzenean lotuta dauden prestakuntza eta hobetze ikastaroak, bai eta gai hauen ingurukoak ere: administrazio-prozedura, herritarren arreta, datuen babes, genero-berdintasuna, berdintasuna, Herritarren Segurtasuna, Babes Zibila, administrazio/antolaketa, emakumeen ingurukoak, indarkeria matxistaren ingurukoak, keinu-hizkuntza edo lanpostuaren zereginetik zerikusi zuzen-zuzena duten beste batzuk; ikastaro horiek gaindituta egon behar dira eta diploma edo egiaztagiri bidez ziurtatuta.

Bakar-bakarrik kontuan izango dira azken 2016tik hona jasotako ikastaroak.

Gehienez ere 10 puntu eskuratuko dira, irizpide hauen arabera:

- 10 ordu arteko ikastaroa: 0,05 puntu
- 10 eta 30 ordu bitarteko: 0,10 puntu
- 31 eta 60 ordu bitarteko: 0,20 puntu
- 61 eta 100 ordu bitarteko: 0,50 puntu
- 100 eta 150 ordu bitarteko: 0,75 puntu
- 150 eta 200 ordu bitarteko: 1,0 puntu
- 200 eta 250 ordu bitarteko: 1,50 puntu
- 250 ordu baino gehiago: 2,00 puntu

Ikastaroen orduak egiaztatzen ez badira, ez dira baloratuko.

4.5.- Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoko kidegoetan Oinarrizko Eskalako agente gisa emandako zerbitzuak: 0,05 puntu, emandako zerbitzu-egun bakoitzeko; 30 puntu, gehienez.

Emandako zerbitzuak egiazatzeko, dagokion administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da (Herri Administrazioan Aldez Aurreko Zerbitzuak Aitortzeari buruzko abenduaren 26ko 70/1978 Legearen I. eranskineko eredua).

5.- Eskabidean merezimenduei buruzko atal zehatz eta bereizi bat egongo da. Eskabidearen atal horretan alegatu eta eskaera-orriarekin batera eskaerak aurkezteko epearen barruan aurkeztu eta egiaztatuz diren merezimenduak ez dira inolaz ere baloratuko edo kontuan hartuko. Eskaera ez den beste atal batean alegatuta eta/edo egiaztatuta egonez gero ere, Epaimahai Kalifikatzaleak ez ditu baloratuko.

### **Hamargarrena.– Oposizio-lehiaketa gainditu duten pertsonen behin-behineko eta behin betiko zerrenda**

Oposizio-lehiaketaren guztizko puntuazioa bi faseetan lortutako puntuazioen batura izango da, eta izangaien lehentasun-ordenan zehaztuko du. Sailkapen-ordenan puntuazioarekiko berdinketak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean jasotako irizpidearen arabera ebatziko dira. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, oposizioko bigarren proban puntuazio altuena lortu duenaren alde ebatziko da, eta, era subsidiarioan, euskararen ezagutzaren balorazioan puntuaziorik altuena lortu duenaren alde.

Epaimahai kalifikatzaileak onartu eta argitaratu egingo du gaintitutakoen behin-behineko zerrenda, dagozkien kalifikazioen arabera, puntuazio-ordenaren arabera.

Aurreko paragrafoan aipatutako behin-behineko zerrenda udalaren iragarki-taulan eta web-orrian argitaratu eta 10 egun balioduneko epean, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte zerrenda horren aurka, eta behin betiko zerrenda onartu baino lehen ebatziko dira erreklamazio horiek.

### **Hamaikagarrena.–ERREKLAMAZIOAK EBAZTEA ETA AGIRIAK AURKEZTEA**

Erreklamazioak ez baleude, argitaratutako emaitzak behin betikotzat joko dira. Erreklamazioak baleude, ebatzi eta argitaratu egingo ditu epaimahaiak, eta jarraian akta Alkate-udalburuari bidalikoa, proposatuz praktiketako funtzionario izenda dezan lehen postuan gelditu den pertsona. Era berean, akta horretan bertan agertuko dira, puntuazioaren hurrenkeran, ariketa bazterzaile guztiak gaintitu dituzten hautagai guztiak.

Hala ere, izendapena baino lehen, lehen tokian gelditu den pertsonak udaletxeko pertsonal sailean aurkeztu beharko du, behin betiko emaitzak argitaratu eta biharamunaz geroztik 15 lan eguneko epean, prozesu honetan parte hartzeko baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duen dokumentazioa, hirugarren oinarrian aipatu bezala.

Aipatutako epealdian , gaintiezina den egoera larri batean izan ezik, proposatutako pertsonak dokumentazioa ekarri ez badu edo ez baditu eskatutako baldintzak egiaztatu, ez da izendatua izango eta berekin izandako ekintza guztiak baliogabetu egingo dira. Kasu honetan, bigarren lekuaren dagoen pertsonaren alde egingo da proposamena.

### **Hamabigarrena.– BALDINTZAK ZIURTATZEA ETA AGIRIAK AURKEZTEA**

Hautatutako pertsonek jatorrizko dokumentuak edo deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak egiaztatzen dituzten kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dituzte Bergarako Udalean, Epaimahai Kalifikatzailearen Akordioa argitaratu eta hurrengo 15 egun balioduneko epean. Interesdunak eskatuta, eta ezinbesteko kausaren bat gertatuz gero, Alkateak epe hori luzatu ahal izango du, gehienez ere 10 egun balioduneko beste batez.

Baldintzak ez betetzea edo ez egiaztatzea.

Ez dira praktiketako funtzionario izendatuko ez badute aurkezten aurreko zenbakian adierazitako epearen barruan –edo luzapenean hala badagokio– deialdian parte hartzeko eskatutako betekizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa, eta ezta ere dokumentazioa aztertu ondoren edo medikuaren bazterketen koadroa egiaztatu ondoren ondorioztatzen bada ez dutela eskatutako baldintza edo betekizunen bat betetzen. Era berean, beren jardun guztiak ondoriorik gabe geratuko dira, eta izendapenerako egon dakizkieken eskubide guztiak galduko dituzte; horrek ez du eragotziko, halaber, beren eskabidea faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna. Kasu horietan alkateak erabakiko du pertsona horiek hautaketa-prozeduristik kanpo uztea eta horien ordez –dagokion sailkapen-ordenaren

lehetasun-hurrenkerari jarraituz – bazterte horren ondorioz deialdiko plaza-kopuruan lekua duten pertsonak jartzea, eskatutako betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren.

### **Hamahirugarrena.– Praktiketako funtzionarioen izendapena**

1.– Hautatutako pertsonek behar bezala egiaztatu badute deialdiaren baldintzak betetzen dituztela, Alkateak izendatuko ditu praktiketako funtzionario, eta argitara emango da.

Praktiketako funtzionario izendatutako pertsonek egoera horretan jarraituko dute prestakuntza-ikastaroa hasten denetik karrerako funtzionario izendatu arte edo hautaketa-prozeduristik kanpo utzi arte.

2.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez ezarriko da prestakuntza-ikastaroa noiz hasiko den.

### **Hamalaugarrena.– Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia**

1.– Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia nahitaezkoak eta bazterzaileak izango dira, banaka hartuta, eta horiek ez gainditzeak hautaketa-prozeduristik kanpo geratzea ekarriko du, bai eta deialdi honetan aipatzen den Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko gainditu ez dituenak izan ditzakeen eskubide guztiak galtzea ere.

2.– Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia ezin izango dira aldi berean egin, eta horietako bakoitzaren iraupena, ez eta metatutakoa ere, ezin izango da 30 hilabetetik gorakoa izan.

#### **3.– Prestakuntza-ikastaroa:**

a) Prestakuntza-ikastaroa ikasturte akademiko bat izango da, nahitaezkoa eta bazterzailea, eta haren edukiak, ebaluatzeko eta gainditzeko moduak eta iraupena Ikasketa-planean eta aplikatu beharreko araudian zehaztutakoak izango dira.

b) Prestakuntza-ikastaroko kalifikazioak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak argitaratuko ditu Udaleko iragarki taulan eta web-orrian.

c) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak adieraziko du prestakuntza-ikastaroa gainditzen ez dutenak baztertuta daudela.

d) Prestakuntza-ikastarora ez sartzeak, ikastaroaren lehen egunean, automatikoki baztertuko du sartu ez den pertsona, salbu eta behar bezala egiaztatutako ezinbesteko kausaren bat gertatzen bada eta aldez aurretik eskatzen bada. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiari dagokio ezinbesteko kasua hautematea, eta berari dagokio dagokion ebazpena hartzea.

e) Prestakuntza-ikastaroan ez sartzeagatik bete ez den plaza hurrengo pertsonak eskaini eta beteko du, esleitutako plazarik gabe geratu bada eta horretarako ezarritako baldintzak betetzen baditu.

#### **4.– Praktikaldia:**

a) Prestakuntza-ikastaroa gainditzen dutenek praktikaldia egingo dute beren jarduera-arloen arabera prestakuntza integrala lortzeko egokienak diren zentroetan edo bulegoetan, eta dagokion Polizia Kidegoko polizia-zerbitzuen egitura eta funtzionamendua bereziki ezagutuko dituzte.

b) Praktikaldia hasi aurretik, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak Ebazpen emango du eta bertan ezarriko dira praktikaldiaren iraupena, hora baloratzeko eta gainditzeko sistemak eta prozedurak, praktikaldiko destinoak eta horietan hasteko data. Ebazpen hori Hogeita Batgarren Oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da.

- c) Praktika-aldian, Bergarako Udalean Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako agentearen kategoriarri dagozkion zereginak betetzearekin lotutako eraginkortasun profesionala ebaluatuko da. Ebaluazioa praktikaldiak irauten duen bitartean gertatzen diren gertakariei buruzkoa izango da soilik.
- d) Praktikaldiiko kalifikazioa Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak egingo du.
- e) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak adieraziko du zeintzuk diren praktikaldia gainditu ez duten pertsona baztertuak, eta udalak jakinaraziko du udaleko iragarki taulan eta web-orrian jarriko den iragarki bidez.

#### **Hamabosgarrena.– Karrerako funtzionarioen izendapena**

- 1.– Hautaketa-prozeduraren behin betiko sailkapen-ordena zehazteko, hautaketa-sisteman lortutako kalifikazioak, prestakuntza-ikastaroarenak eta praktikaldiarenak batuko dira eta Alkatearen Ebazpen bidez onartu eta argitaratuko da.
- 2.– Praktikaldia amaitu eta hurrengo bi hilabeteen barruan hautaketa-procedura gainditu dutenak izendatuko ditu karrerako funtzionario, Alkateak ebazpen bidez.

Dagokion Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente izendapenak egingo dira.

- 3.– Izendapena indarrean dagoen araudian aurreikusitako moduan argitaratuko da.

#### **Hamaseigarrena.– Praktiketako funtzionarioen araubide juridikoa**

- 1.– Praktiketako funtzionario gisa, dagokion administrazioaren aldetik, sartu nahi duten kategoriako sailkapen-taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien baliokidea den ordainsaria jasoko dute, eta, praktikak lanpostu batean egiten badira, lanpostu horri esleitutako ordainsari osagarriak gehituko dira.
- 2.– Praktiketako funtzionarioei Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren barnetegiko araudia eta Barne Erregimeneko Erregelamendua aplikatuko zaie prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian. Era berean, diziplina-araubideko kasuetan, egitate hori ez bada irakaskuntza-diziplinaren falta soila, osagarri gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoen diziplina-araubideko arauak aplikatuko dira.
- 3.– Prestakuntza-ikastaroa edo praktika-aldia gainditu ez izana edo ez-gai deklaratzea, bai eta oinarri honen aurreko paragrafoan aipatzen diren arauen arabera larritzat edo oso larritzat tipifikatutako arau-hauste bat egiteagatik zehapen bat ezartzear ere, hautaketa-prozeduratik automatikoki kanpo uzteko arrazoi espezifikoak dira, bai eta prozedura horretatik eratorritako eskubide guztiak galtzea ere, Bergarako Udaleko Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko.

Era berean, prestakuntza-ikastaroari aplika dakizkioken ebaluazio-irizpideekin bat etorriz, Ikasketa-planean jasotako ikasgaien ebaluazio partzialetik ondorioztatzen bada ezinezkoa dela prestakuntza-ikastaroa gainditzea, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak hura baztertzea proposatu ahal izango dio praktiketako funtzionario izendatu duen organoari, eragindako pertsonari entzun ondoren.

- 4.– Prestakuntza-ikastarora Ikasketa-planean aurreikusitako gehienekoa baino denbora gehiagoz joaten ez bada, hautaketa-proceduratik kanpo geratuko da automatikoki, Barne Erregimeneko Erregelamenduari buruzko erregelamenduaren arabera ezinbesteko kausarik ez badago behintzat.

5.– Prestakuntza-ikastarotik faltatzea dakaren edozein baimen edo lizentzia hartzeko eskaera Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian aurkeztu beharko da, eta aldez aurretik Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Prestakuntza Ataleko Udaltzaingoaren Arloko Burutzak baimendu beharko du, dagokion udalari buruzko araudiaren arabera. Zerbitzuaren beharren araberako lizentziak edo baimenak hartzeko, horiek existitzen direla ulertuko da, baldin eta derrigorrezko irakaskuntza-jarduera programatuta badago.

6.– Praktikaldian Hamabosgarren Oinarriko 4.b zenbakian aipatzen den ebazpenean ezarritako epea baino epe luzeagoan ez bertaratzeak hautaketa-prozesutik automatikoki kanpo geratzea ekarriko du, ezinbesteko kausarik ez badago behintzat.

7.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ezinbesteko kasua dagoela ikusi ondoren, horrek praktiketako funtzionarioaren izendapena egin duen organoari proposatu ahal izango dio eragindako pertsonak ikasturte osoa errepikatu ahal izatea egiten diren hurrengo ekitalditan, edo praktikaldi osoa errepikatu ahal izatea edo praktikaldia osatu ahal izatea, ezinbesteko inguruabarrak desagertu ondoren, betiere hala eskatzen badu.

8.– Prestakuntza-ikastaroaren edo praktika-aldiaren kalifikazioa eten eginda geratuko da, bazterzko arrazoiren bat gertatzen bada, harik eta hasitako bazterze-espedientea ebatzi arte.

9.– Prestakuntza-ikastaroan edo praktika-aldian hautaketa-prozeduristik kanpo geratu diren pertsonek armamentua, dokumentazioa eta hornitutako ekipo mota guztiak itzuliko dituzte.

10.– Prestakuntza-ikastaroa edo praktika-aldia karrerako funtzionario izendatu aurretik borondatez uzten badu, uko egin duen pertsonari prestakuntzan inbertitutako zenbatekoak itzultzeko eskatzea aukera emango dio dagokion administrazioari.

Horretarako, jarduketa hauen ondoriozko zenbatekoak erreklamatu ahal izango dira:

- Prestakuntza-ikastaroaren zenbatekoa (indarrean dagoen prezio publikoei buruzko araudiaren arabera).
- Prestakuntza-ikastaroan ordaindutako ordainsariak.
- Prestakuntza-ikastaroan emandako ekipazio pertsonalaren zenbatekoa.

Kopuru horiek dagokion polizia-kidegoari baja eman aurretik itzuli beharko dira.

### **Hamazazpigarrena.- Bazterzko osasun-kasuen taula**

1.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak hautaketa-prozeduraren edozein unetan egiaztatu ahal izango du ez dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Erregelamendua onartzen duen Dekretua bigarrenez aldatzen duen otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan (2.1.f oinarria) agertzen den bazterketa medikoen taulan sartuta.

